

GAIZKI-ULERTU LEHIAKETA

Eibarko Udal Euskaltegiak eta AEK-k udalarekin lankidetzan **GAIZKI-ULERTU** lehiaketa antolatu dute. **Gaizki-ulertua barregarria izan daiteke, edo larritasun egoera sortu duena edo...**

Euskara eta gaztelania edo euskara eta beste hizkuntzaren bat erabiltzean gaizki-ulerturen bat gertatu zaizu? Horixe da kontatu behar diguzuna.

Parte-hartzaile bakoitzak berari gertatutako edo norbaiti entzun edo nonbaiten ikusitako gaizki-ulertua kontatu behar du. Testuak gehienez 200 karaktere (5 lerro) izan behar ditu

Parte hartzeko:

- Parte hartu nahi duenak, asko jota, 200 karaktereko gaizki-ulertua idatzi behar du euskaraz. Gaizki-ulertuak euskararekin zerikusia izan behar du.
- Proposamen horiek honako helbide hauetako batera bidali behar dira: euskaltegia@eibar.eus eibar@aek.eus euskara@eibar.eus

- Gaizki-ulertua aurkezteko azken eguna **otsailaren 14a izango da.**

Adibidea:

Posta elektronikoz bidaltzeko mezu baten amaieran honako hau jarri nuen:

“Zalantzarik izanez gero, deitu 943708444 telefonora (luz. 4200).”

Hurrengo egunean bi dei jaso nituen:

Lehenak *“Luzekin hitz egin nahi dut”* esan zidan, eta bigarrenak, berriz, *“M. Luz jar daiteke?”*.

Ordutik aurrera mezuetan honako hau jartzen dut: *“943708444 (luzapena 4200)”*

Aurkeztutako gaizki-ulertuen artean 2 hautatuko dira: bata epaimahaiak hautatutakoa eta bestea jendearen boto gehien jaso dituen.

Botoa emateko:

- Botoa www.eibarko-euskara.eus webgunean eman beharko da, **martxoaren 7a bitartean.**
- Aurkeztutako gaizki-ulertuen artean gehien gustatzen zaizuna aukeratu eta botoa eman; ez da besterik egin beharko. Boto-emaile bakoitzeko boto bakarra onartuko da.

Sariak:

- Saria ematerako orduan, jasotako boto-kopurua eta epaimahaiaren iritzia hartuko dira kontuan:
- Bi sari emango dira:
 1. **Epaimahaiaren saria:** Coliseoko emanaldi baterako bi sarrera, Armagintza Museorako bi sarrera, eta udalaren hainbat argitalpen.
 2. **Jendearen boto gehien jaso duenarentzat:** Armagintza Museorako bi sarrera eta udalaren hainbat argitalpen.